





2 0 0 5

**TXOSTENA**





# AURKIBIDEA

Lehendakariaren agurra	7
CSCE-EKGK-ren jarduera 2005eko ekitaldian	9
“BITARTU” Gatazkak Konpontzeko Zerbitzuaren Oroitidazkia	13
Osaera	21
Aurrekontuari dagozkionak	25
Estatistika-eranskina	31





# Agurra

Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta kooperatiben enpresa-jardueraren oinarri den maila ekonomiko orokorrean 2005eko ekitaldia oso ona izan da, merkatuko prezioetan BPG 4 hamarren igo baita 2004koari buruz, eta %3,7koa izan da; hori euroguneko batez bestekoa baino hiru aldiz gehiago da. Halaber, biztanleria landun globalaren bilakaera hobetu egin da (%1,4 igo da 2004. urteari buruz), eta langabezia-tasa 2005eko azken hiruhilekoan %4,95ekoa izan da (BJA/PRA). 2004ko ekitaldian bezalaxe, kooperatiben jarduera garatzen deneko ingurune ekonomiko orokorra printzipioz ona izan da kooperatibismoa enpresa-ikuspegitik sortu eta sendotzeko.

Erakunde mailan ere, ekitaldi ona izan da kooperatibismoarentzat. Martxoaren 29ko 56/2005 Dekretua, Euskadiko Kooperatiba Legearen Erregelamendua onartzen duena, argitaratzeaz gain, aipatzekoa da batez ere "Asmo eta lankidetz hitzarmena Eusko Jaurkitzaren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren artean", Kontseiluaren barruan antolatua, honelako ezaugarriak dituen lehenengoa; horrela lankidetz-eremuak finkatzera bideratutako harreman- eta lan-sail luzea burutu da, eta fase berriari ekingo zaio datorren ekitaldian, lankidetz-eremu horietako bakoitzean konpromiso zehazgarriak, behar bezala adostuak, finkatuz.

Baina 2005 garrantzitsua izan da, halaber, Plan Estrategiko berria egiteko. Izan ere, zertu beharreko jardueraren plangintzaren aldetik, helburu estrategiko berriak eztabaidatu, adostu eta onartu dira, orain arte finkatutakoa, 2003-2005eko Plan Estrategikoan jasoa, mantentzean oinarritua.

Horregatik, aurreko helburuen betetze maila ebaluatu ondoren, datozen hiru urteotarako (2006-2008) hausnarketa estrategikoan lan egin da, hor, besteak beste, ondorengoak azpimarratu behar direlarik:

- Kontuan izanda euskal kooperatiba-mugimendua pixkanaka Konfederazioaren inguruan ari dela sendotzen, bi erakunde horien jarduerak koordinatu behar dira kooperatibismoaren

zabalkunde eta sustapenaren oinarriko eremuetan, garrantzi handiko alderdia Kontseiluaren jardueran.

- Halaber, elkarteei laguntzeko era aztertu behar du Kontseiluak, Kontseiluaren jatorrizko zentzuan sakondu ahal izateko, proposamenak sortzen dituen organo eta Administrazioaren kontsulta-organo gisa. Jarduera horiek, soilik operatiboak diren beste batzuk baino areago, Kontseiluak landu ditzakeenak dira bera osatzen duten hiru errealitateak biltzen dituen organo gisa: Administrazioa, Kooperatiba Mugimenduko elkarteak eta Unibertsitateak, hor baitago bere sendotasuna eta balio erantsia.
- Bestalde, Kontseiluak bere izaera erreferentziala areagotu nahi du eragile aktibo izanik hainbat jarduera-eremutan; beraz, datozen urteotan Administrazioarekin, euskal kooperatiba-mugimenduko eragileekin eta bere egitekoak betetzeko interesgarri diren beste eragile batzuekin konexio-sare estuagoa eratzeari emango zaio lehentasuna.

Helburu estrategiko horiei erantsi behar zaizkie jada finkatuta dauden jarduera eta zerbitzu arruntak, adibidez BITARTU (kooperatibatako gatazkak epaitzietatik kanpo konpontzeko zerbitzua), edo kontsulta eta aholkularitza-lana, ez Herri Administrazioena bakarrik, baita kooperatiba eta kooperatibistena ere, edo sustapen-, prestakuntza- eta zabalkunde-lanak ere bai, horien guztien berri agertzen delarik Oroitidazki honetan. Planteamendu horiek guztiek erantzuna bilatu nahi diote Kontseiluak testuinguru berrian izan behar duen zentzuari, eta bera sortzeko izan ziren jatorrizko arrazoiak gaurkotu nahi ditu: Euskadiko kooperatibismoa eta kooperatibak sustatu eta bultzatzea, protagonistekin elkarlanean.

Azkenik, Kontseiluko kontseilarien konpromisoa eta lankidetz nabarmendu behar da, baita kontseilari ohiena ere, oraindik jarraitzen dutelako parte hartzen Kontseilari Ohien Foroaren bidez; azkenik, azpimarratzekoa da zerbitzu teknikoaren eta administrazio-zerbitzuen profesionaltasuna eta ongi egitea ere.





# CSCE-EKGGK-ren jarduera 2005ko ekitaldian



## CSCE-EKGK-REN JARDUERA 2005EKO EKITALDIAN

Kontseiluak ekitaldi bakoitzean garatu beharreko ekintzak Plan Estrategikoko ildo estrategikoen garapenean zehazten dira, nahiz eta horiek guztiak ondorengo multzo hauetakoren batean sar daitezkeen, Kontseiluak betetzen dituen funtzioen izara kontuan hartuta; alegia:

- ◆ **Administrazioarekiko elkarlana**, kooperatibak kitatu eta eraldatzeko espedienteetako administrazio-jardueraren bidez, aginduzko txostenak eginez eta Kooperatiba-Erregistroan egindako kontsultetan lagunduz.
- ◆ **Zerbitzu-ematea**, gatazkak konpontzeko arloan zentratzen dira, batez ere, BITARTUren bidez, hau arduratzen delarik arbitraje, adiskidetze eta bitartekotzako prozedurak kudeatzeaz.

Bestalde, kooperatibei buruzko printzipio, arau, ohitura eta usadioen interpretazio eta aplikazioaz Kontseiluari zuzenean egiten zaizkion kontsultei ere erantzuten zaie.

- ◆ **Kooperatibismoa sustatzea**, bai zuzeneko jardueraren bidez eta bai Kooperatiba Mugimenduak eraturako estaldura-erakundeekin eta Kooperatiba Mugimenduko elkarteekin elkarlanean.

Lehenengo bi jarduera-arloak (Administra-zioarekiko elkarlana eta Zerbitzuen ematea) **Araudien Aplikaziorako batzordearen eta Sozietateak Iraungitzeko Prozesuetan Esku Hartzeko batzordearen (CIPES)** bidez garatzen dira. Bestalde, Sustapen batzordea Kooperatibismoa sustatu eta bultzatzeaz arduratzen da.

Indarrean dagoen Plan Estrategikoan (2003/2005) hiru helburu estrategiko planteatzen dira, Kontseiluak epe horretan izango duen ekintza-multzoa egituratzen dutenak, hau da:

- ◆ Kooperatiba-eredua ezagunagoa izatea bai kooperatiben barruan eta bai gizartean oro har.
- ◆ Kooperatibismoa gizartean eta erakundeen artean aintzakitatzat hartuagoa eta preziatuagoa izatea.

- ◆ Kooperatiba gehiago sortzea eta lehendik daudenak sendotzea.

Helburu nagusia proposaturiko horietako azkena da, Kontseiluaren kudeaketaren emaitzak ebaluatzeko froga-harri dena. Beste bi helburuak tresnak dira helburu horretara iristeko: eredu erakargarriagoa izango da eta, beraz, eredu kooperatiboaren araberrako enpresa gehiago sortuko da, baldin eta ereduaren ontasunaren gizarte-aitorpen zabal baldin badago. Aldi berean, aitorten horrek ezagutza hobearen bidez iritsi behar du, ez bakarrik oinarri teorikoen ezagutza hobea, baita izandako lorpenena eta euskal gizartean duten eraginarena ere.

Ondoren, CSCE-EKGK-k 2005ko ekitaldian gauzatutako ekintzak planteatzen dira, horien ardua duten Batzordeen arabera multzokatuta, guztien aurretik izaera orokorrekoak daudelarik.

### Izaera orokorrekoak

#### **Asmo eta Lankidetzaren Hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren artean**

Ekainaren 1ean izenpetu zen Hitzarmen hau, besteak beste ondorengo jarduera-eremuak ezartzen dituena:

- ◆ Euskal Kooperatiba Mugimenduaren ordezkartasun instituzionala.
- ◆ Euskadin kooperatiba-enpresa berrien eta enplegu kooperatiboaren sustapena bultzatzea.
- ◆ Euskal kooperatiben arteko lankidetzaren bultzatzea, baita enpresa- eta ordezkari-integratzaileko egungo egiturak ere, Euskadin kooperatibismoa sendotu eta ziurtatzeko helburuarekin.
- ◆ Dauden finantza-tresnak indartzea Kooperatiba Mugimenduaren sustapenaren zerbitzura.

- ◆ Jendearen garapen eta gaikuntza.
- ◆ Euskal Kooperatibismoaren zabalkundea eta ezagutza.
- ◆ Kultura kooperatiboa eta gobernu onerako kodeak garatzea.
- ◆ Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua indartzea.

2005eko azken hiruhilekoan aurrez ikusitako harreman instituzionalak gauzatu dira Eusko Jaurlaritzan Sail hauekako arduradun gorenekin:

- ◆ Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila.
- ◆ Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- ◆ Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- ◆ Nekazaritza eta Arrantza Saila
- ◆ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean —eta batzordea formalki 2006ko lehen hiruhilekoan eratzea espero da— Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak izendatzea zen harreman horien oinarritzko helburuetako bat.

### Gizarte Erantzukizuneko Balantzea

Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba Ikaskuntzen Institutuaren aholkularitza teknikoarekin, bi kooperatibatan Gizarte Erantzukizuneko Balantzeak ezartzen lagundu dugu:

- ◆ Electra Vitoria, S. Coop.
- ◆ Mungiako Nekazaritza Kooperatiba

Eta hori dokumentu hauek kooperatibetan ezartzeko esku-liburu bat eduki ahal izateko helburuarekin, G.R.I. (Global Reporting Initiative) delakoaren ebaluazio-tekniketan eta aurrez aipaturiko esperientzia praktikoetan oinarrituta.

### Kontseilari ohien foroa

2006/2008 Plan Estrategikoaren eztabaida zela eta, hausnarketa estrategikoaren prozesuan parte hartzeko aukera izan zuten Kontseiluko kontseilari ohiek, eta interes handiko ekarpenak egin zituzten, ondorengo hiru urteotarako helburu estrategikoak zehazterakoan kontuan hartu zirenak.

## SUSTAPEN BATZORDEA

### Kooperatiba Ikerketa sustatzea

Geroko erakundearen Batzorde kudeatzailean parte hartu du Kontseiluak, eta euskal kooperatibismoaren azterketa eta ikerketa bultzatzea da helburu.

2005eko uztailaren 19an Elkar Ikertegia, S. Coop. eratzeko Batzarra egin zen, eta han Kontseiluak ere parte hartu zuen beste hiru erakunde parte-hartzaileek izendaturiko ordezkariarekin batera. Hona hemen 3 erakunde horiek:

- ◆ Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
- ◆ Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa eta
- ◆ M.C.C.

Kapital Sozialean duen parte-hartzeari dagozkion ekarpen ekonomikoak eginda, Kontseiluak ordezkarien bidez parte hartzen du Elkar-Ikertegiaren Kontseilu Errektorean, Kontseiluaren Kudeaketa Planean ezarritako jarduera-irizpideak bultzatuz, hots:

- ◆ Osagarritasuna Kontseiluaren eta Kooperatiba Mugimenduko beste erakunde batzuen jardurekin.
- ◆ Funtzioak betetzerakoan gain-jartzeak eta bikoiztasunak saihestea.
- ◆ Tresna izaera Kontseiluari berez dagozkion eginkizunak betetzeko.

### Kooperatibismoa sartzeari ikasgai gisa Eskolako Curriculumean

Kontseiluak eta Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburu berriarekin eta arduradunekin izandako harremanetan kooperatibismoaren gaia eskola-curriculumean sartzeko kooperatiba-mugimenduak duen interesa azaldu zaie. Halaber, aipaturiko Sailean ere interesa agertu da eskainitako lankidetzaren horretarako.

Interesen bat-egite horren ondorioz, Kooperatiba Eredua eskola-curriculumean sartzeari argi eta garbi ezarrita geratu da “pertsonen garapen eta gaikuntzari” buruzko jarduera-eremuan, Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu den “Asmo eta Lankidetzaren Hitzarmenaren” barruan.

Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak, Kontseiluarekin elkarlanean, hasitako lan batekin jarraituko du: jendearen garapenarekin zerikusia duten oinarrizko ardatzak mugatzea, eta ekintzailatza edo enpresa-espirtuaren aldeko politikak bultzatzea.

### **Elkar-Lan, S. Coop. Sustapen Elkarteak bultzatzea**

Azpiratzen da helburu kuantitatibo garrantzitsua bete izana, hau da, eratuak/eratuak-ko kooperatiben kopurua (40), aurrez ikusitakoak ere 40 baitziren.

Azpiratzen da, halaber, "Enpresa-ekimen kooperatiboen behatokia" abian jarri izana, Kontseiluak ere parte hartzen duela lan-taldean. 2006ko ekitaldiaren bukaerarako lehenengo txostena aurkeztea espero da.

### **OINARRI, S.G.R. laguntzea**

Kontseiluaren diru-funtsen bilakaerari dagokionez eta finantza-erakundearekin izenpetutako hitzarmenekin lotuta (abalak bermea eta sozietate-partidetzak eskuratzea) esan behar da, 2005. ekitaldian, ez dela transferentzia berririk egin dirufuntsetara, eta abalak bermatzeko Funtsean aplikatu gabeko baliabideak sozietate-partidetzak eskuratzeko Funtsera aldatu direla; hori guztia Sustapen Batzordeak horretaz hartutako irizpideen arabera.

### **Kooperatiba-sustapenerako programen garapenean laguntzaile diren erakundeekin egindako Hitzarmenen bidezko ekintzak**

Lankidetzak Hitzarmenak egin dira erakunde laguntzaileekin (\*) kooperatiba-sustapenerako programa hauek elkarrekin finantzatzeko:

(\*) Hona hemen erakundeak identifikatzeko erabili diren siglak:

**CCE-EKK:** Confederación de Cooperativas de Euskadi/Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

**FCAE-ENKF:** Federación de Cooperativas Agrarias de Euskadi/Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioa

**FCTE-EGKF:** Federación de Cooperativas de Transportistas de Euskadi/Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa

**FCEE-EIKF:** Federación de Cooperativas Enseñanza de Euskadi/Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioa

**FECOE-EKKF:** Federación de Cooperativas de Consumo de Euskadi/Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa

**FCTAE-ELEKF:** Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi/Euskadiko Lan-Elkartuko Kooperatiben Federazioa

**UD-DU:** Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea

**UPV-EHU:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

**MU:** Mondragon Unibertsitatea

### **1. helburua:**

### **Kooperatiba-eredua bai kooperatibetan bertan eta bai gizartean oro har ezagunagoa izan dadin lortzea**

#### **◆ Bidaia Teknikoa Eskoziara (FCAE-ENKF)**

Irailaren 4tik 10era bidaia egin da Eskoziara, Euskadiko Nekazaritza Kooperatibetako 61 lagunen parte-hartzearekin.

Bidaia horretan, herrialde hartako nekazaritza-kooperatibarik adierazgarrienak ikusteaz gain, bilera egin zen SAOS (Eskoziako Nekazaritza Kooperatiben Federazioko) ordezkariarekin, eta han informazioa trukatzeko aukera izan genuen Eskozian eta Euskadin nekazaritzako kooperatibismoak duen egoeraz.

#### **◆ Finlandiara bidaia (FCEE-EIKF)**

Iazko urriaren 9tik 14ra bitartean, 25 euskal irakaskuntza kooperatibetako 40 lagunek Helsinkiko 4 ikastetxe eta Unibertsitateko Pedagogia - Fakultateko Irakasle Eskola bisitatu zuten.

Bisitaldiaren helburu nagusien artean, alde batetik, zuzeneko esperientziatik Finlandiako eskola-sistemak OCDEko herrialde guztien artean, lortu dituen emaitzak, gaitasunetan nahiz ekitatean, esagutzea.

Bestetik, bidaiaren parte hartu zuten kooperatiben integrazioa eta lankidetzak sustatu zen eta, aldi berean, esperientziaren emaitzekiko interesa duten irakaskuntzako kooperatibak, euskal erakunde eta kooperatiba-mugimenduko beste erakunde batzuk sakon informatzea.

Kontseilu honez gain, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Saileko, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak esperientzi honi bere babesa eman dio.

#### **◆ Ravenara bidaia (FCTE-EGKF)**

## 2. helburua

### Kooperatiba-eredua gizartean eta erakundeetan aintzat hartuagoa izan dadin lortzea

#### ◆ Parte-hartze integrala kooperatibetan (M.U.)

M.C.C.ko sozietate-egitura ez kooperatiboetan langileak sartzeko mekanismoak analizatzen dituen azterketa egiten lagundu dugu.

#### ◆ Euskadiko Irakaskuntzaren Behatokia (FCEE-EIKF)

“Gizarte-kohesioa irakaskuntzako kooperatibetan” izenburuaz azterketa egin da eta irakaskuntzako kooperatibek euskal gizarteari egindako ekarpena aztertzen da hiru arreta-eremutan:

- hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak
- ikasle etorkinen eskolatzea
- hizkuntza-normalizazioa

Eta ondorioak FCEE-EIKF-k Bilbon egindako I. Biltzarrean eztabaidatu ziren.

#### ◆ FCEE-EIKFren Prestakuntza Plana (FCEE-EIKF)

Azterketa bat egin da, eta EAeko irakaskuntzako kooperatibetan egindako inkestari emandako erantzunetan oinarrituta, honelako ikastetxeetan prestakuntzaren arloan jarduteko ildo batzuk biltzen eta egituratzen ditu.

#### ◆ Nekazaritza Kooperatiboa (FCEE-EIKF)

Irakaskuntzako zenbait ikastetxe kooperatibotako ikasleek esne-behien ustiategiak, kooperatiba-erregimenean, ikusteko aukera izan dute. Jardueraren helburua, lehen irakaskuntzako azken mailetakoko ikasleei nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibismoa ezagutaraztea.

## 3. helburua.

### Kooperatiba gehiago sortu eta lehendik daudenak finka daitezen lortzea

#### ◆ Arriskuen Prebentzio Zerbitzua (FCAE-ENKF)

FCAE-ENKFren barruan laneko arriskuen prebentzio-zerbitzu mankomunatua sortzeko Bideragarritasun Plana egin da.

Halaber, aipaturiko zerbitzuaren kudeaketa-sistema diseinatu da, eta sistema hori hainbat kooperatibatan probatu da.

Nekazaritza-sektoreko 22 kooperatibak iragarri dute guztira zerbitzu honetan sartuko direla, trami-

tazio-fasean dagoelarik horiek atxikitzeko agiriaren betetzea.

#### ◆ Arriskuen azterketa (APPCC)

Autokontrol-sistema diseinatu da nekazaritzako elikagaien industrian, betiere Arrisku eta Kontrol Gune Kritikoen Analisia (APPCC) sisteman oinarrituta.

Horretarako, FCAE-ENKF-k kontraturiko langileen bidez, euskal nekazaritzako kooperatiben arazoetara egokitutako laguntza-planak prestatu dira, sei jarduera-arlotan bilduta: zerealak, sotoak, pentsuak, patatak, hiltegiak eta baratzeak.

Azkenean, 20 barne-ikuskatze edo auditoria egin dira guztira, euskal nekazaritzako kooperatibetan APPCC zenbateraino ezarrita dagoen ikusteko.

#### ◆ Kooperatiba aldizkaria (FECO-EKKF)

Ekitaldi osoan “Kooperatiba” hiru hilabetekariaren lau zenbaki argitaratu dira; batez ere FECOEn elkarturiko kooperatibek dituzten establezimenduetan banatu dira, baita ekonomia eta lan arloetan diharduten komunikabideen eta erakunde pribatu nahiz publikoen artean ere.

#### ◆ Kanpaina Euskadiko aholkularitza-bulego eta -enpresetan (FCTAE-ELEKF)

Jarduera honetan KOOP aldizkaria bidali da, baita interes kooperatibo orokorreko lege-arauei buruzko informazioa ere, enpresa-aholkularitzaren arloan diharduten 3.000 erakunde ingururi.

#### ◆ Kooperatibismoaren zabalkunde-kanpaina (FCTAE-ELEKF)

Irratian iragarki bidezko kanpaina egin da jendea oro har enpresa kooperatibo berriak sortzera eta kooperatiba-mugimenduko elkarteekin parte hartzera bultzatzeko; pare bat prentsaurreko ere egin dira komunikabideekin.

#### ◆ Enpresen deslokalizazioari buruzko eta Asia-Ozeano Bareko herrialdeen hazkunde ekonomikoak eta EB-n estatu berriak sartzeko duen eraginari buruzko programa (FCTAE-ELEKF)

Jardunaldi bat izan zen Gasteizen 2005eko abenduaren 14an.

Bai Jardunaldian azaldutako esperientzia kooperatiboaren interesagatik eta bai parte-hartzaielen kopuruagatik (80), bete egin da ekitaldi honetatik espero zena.

#### ◆ **Gogobetetasuna neurtzea (FCTAE-ELEKF)**

Jendearen gogobetetasuna neurtzeko programak egiten lagundu dugu, guztira 10 industria-kooperatibatan.

#### ◆ **Kooperatiba-prestakuntzako edukiak zabaltzea (M.U.)**

Ekimen honekin kooperatibei eta kooperatibismoari buruzko edukiak gehitu nahi dira Mondragón Unibertsitatearen prestakuntza-eskaintzan, graduoko nahiz gradu ondorengo eremuan, eta hori guztia eduki berri horiek MU-ren prestakuntza-eskaintzaren 10 irakasgaitan sartuta.

#### ◆ **Kooperatiba-sustapen eta ekintzaitzako sistema (M.U.)**

Ekimen honen helburua enpresa-sustapen eta kooperatiba-ekintzaitzako proiektuak sortzea da, eta hori praktiketako unibertsitate-mekanismoen orientabidearen, proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzaren, ikasketa bukaerako proiektuen eta master bukaerako proiektuen bidez, ekintzaitzaren eta autoenpleguaren kultura sustatu eta garatzeko estrategiaren barruan.

#### ◆ **Heziketa sozio-etiko kooperatiboaren hasiera (MU)**

2005eko ekitaldian bai heziketa sozio-etiko kooperatiboaren edukiak eta bai heziketa kooperatiborako metodologia-prestakuntza diseinatu dira.

Gainera, esperientzia pilotu gisa hezitzaile kooperatibo izateko profila zeukaten 10 pertsonari eman zaie ikastaro hau.

#### ◆ **MUNDUKIDE (M.U.)**

Proiektua gauzatu den lehen seihilekoan, aipatzekoa da Komunitate Garapeneko Esperientzien Trukatze Programaren seigarren edizioa egin dela martxoan.

Bigarren seihilekoan, Kreditu eta Aurrezki Esperientziaren Trukatze eta Heziketa Programaren lehenengo edizioa egin da, Mozambique, Nikaragua, El Salvador, Peru eta Mexikotik etorritako 6 pertsonarekin.

Halaber, ekitaldian zehar Herri Ekonomiako Kooperatiben (CEP) inguruan ezaguera-multzo bat antolatzeko eta haien premietara egokitutako laguntza tekniko emateko jarduerak egin dira.

#### ◆ **FCEE-EIKF ren I. Biltzarra (FCEE-EIKF)**

Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen azaroaren 17an eta 18an, eta irakaskuntzako kooperatibetako ordezkarien parte-hartze garrantzitsua izan zen, baita Administrazioaren eta beste gizarte-eragile batzuen arduradunena ere.

Honelako ekitaldiek berez duten komunikazio-bultzakadaz gain, analisi eta hausnarketarako foroa lortu da, non FCEE-EIKFren jarrera adierazi baita datozen urteotan espero izan daitekeen koiunturaren aurrean (LOE eta hezkuntza-ituna) eta hezkuntza-kudeaketak izan ditzakeen erronken aurrean: kalitatea, gizarte-kohesioa eta kostuen azterketa.

#### ◆ **Informazio Buletina (FCEE-EIKF)**

Aldizkari hau Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak argitaratu du eta bere jardueri buruzko informazio guztia ematen du bertan, hezkuntza-sektoreari eta irakaskuntzako kooperatibei begira.

## **SOZINETATEAK IRAUNGITZEKO PROZESUETAN ESKU-HARTZEKO BATZORDEA (CIPES)**

- ◆ Guztira 17 likidazio edo kitatze-espeditente bideratu dira eta sozietateak eraldatzeko 2 espeditente, baita 14 informazio-espeditente ere.

## **ARAUDIEN APLIKAZIORAKO BATZORDEA**

- ◆ Guztira 15 kontsulta juridikori erantzun zaie idatziz.
- ◆ Aginduzko txosten hauek ere egin dira:
  - AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Gizarte Ekonomian enpresa-lankidetzarako laguntzak ezartzen dituen.
  - AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzak antolatzen dituen.

- AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia teknikorako laguntzak ezartzen dituena.
- AGINDUA, Gizarte Ekonomian murgiltzeko laguntzak antolatzen dituena.
- AGINDUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpresen elkarte-egiturak sortu eta finkatzera bideratutako laguntzak ezartzen dituena.
- AGINDUA, Gizarte Ekonomian prestatzeko laguntzak ezartzen dituena.
- AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena.
- AGINDUA, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.
- AGINDUA, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.
- AGINDUA, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, salgaien errepideko garraio publikoaren arloan enpresa-kontzentrazioarako laguntza-programa bat ezartzen duena.
- AGINDUA, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, salgaien errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak emateko deialdia egiten duena.
- DEKRETUA, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesteko Dekretua aldatzen duena.
- DEKRETUA, lanerako laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- DEKRETUA, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2006. urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena.







# “BITARTU” Gatazkak Konpontzeko Zerbitzuaren Oroitidazkia



# BITARTU-KOOPERATIBETAN GATAZKAK KONPONTZEKO EUSKAL ZERBITZUAREN OROITIDAZKIA

## Aurkezpena:

Urtero egiten dugun bezala, labur bada ere, Bitartu-Kooperatibetan Gatazkak Konpontzeko Euskal Zerbitzuak 2005. urtean egindako lana aurkeztuko dugu orain.

Gure zeregina da kooperatiben artean, kooperatiben eta horien bazkideen artean, edo kooperatiben barruan organo sozial desberdinen artean edo bazkideen artean sortu eta berari aurkezten zaizkion auzi-gaiak erabakitzea.

Auzi horiek konpontzeko adiskidetzea, arbitrajea edo bitartekotza erabiltzen dira, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurari buruzko Erregelamendua, 2004.09.21eko EHAAan argitaratua, erabiliz.

Jakina, lan horiek egiteko beharrezko adiskidetzegile, arbitro eta bitartekariak izan ditugu, eta biziki eskertzen diegu guztiei beren bokazio eta profesionaltasuna.

Gogo osoz nahi genuke egindakoa onuragarri izatea kooperatibentzat eta dagozkien bazkideentzat, eta izan daitezela aurrekari kooperatiban bertan konpondu ahal izateko antzeko arazoak, edota konponbide honetatik bideratzeko dauden gatazkak.

Ekitaldian bideratutako arazozen zenbait xehetasun eta berorien gaia ondorengo tauletan aurkeztuko ditugu:



# BITARTU ESPEDIENTEEN DESKARGUA 2005

## ARBITRAJEAK: 18

ZENBAKIA	MOTA
1-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
2-2005	AZKEN BALANTZEARI BURUZKO DESADOST.
3-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
4-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
5-2005	ZIGORRA INPUGNATZEA
6-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
7-2005	ZIGORRA INPUGNATZEA
8-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
9-2005	ETXEBIZITZA ESLEITZEA
10-2005	ERABAKIAREN BALIORIK EZA
11-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
12-2005	EKARPENEN INTERESA
13-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
14-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA
15-2005	ERANTZUKIZUN-AKZIOA
16-2005	KALTEEN ORDAINA
17-2005	ERABAKIAREN BALIORIK EZA
18-2005	BAZKIDE LANGILEEN SUBROGATZEA

## ADISKIDETZEAK: 4

ZENBAKIA	MOTA
1-2005	ZORRAREN AITORTZA
2-2005	INFORMAZIO-ESKUBIDEA
3-2005	ETXEBIZITZA ESLEITZEA
4-2005	KOOPERAT. UTZITAKO BAZKIDE KITAPENA

## BITARTEKOTZAK: 1

ZENBAKIA	MOTA
1-2005	KOOPERATIBAREN KITAPENAZ



# CSCE-EK GK-ren osaera



# 2005EKO EKITALDIAN ORDEZKATZE HAU IZAN DA

## OSAERA

- ◆ Nekazaritza eta Arrantza Saileko José Antonio Suso Perez de Arenaza jauna sartu da Esteban Saenz de San Pedro Solano jaunaren ordeiz.

Beraz, Kontseiluaren osaera honako hau zen ekitaldiaren bukaeran:

- ◆ **Lehendakaria**

Jesus Alfredo Ispizua Zuazua jn.t.a.

- ◆ **Lehendakariordea**

Patxi Ormazabal Zamakona jna.

(Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa)

- ◆ **Kontseilariak**

Koldo Arrese Garcia jna.

Eusko Jaurlaritza (Unibertsitate, Hezkuntza eta Ikerketa Saila)

José Antonio Suso Perez de Arenaza jna.

Eusko Jaurlaritza (Nekazaritza eta Arrantza Saila)

Alejandro Martínez Charterina jna.

Deustuko Unibertsitatea

Baleren Bakaikoa Azurmendi jna.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Jose M<sup>a</sup> Aizega Zubillaga jna.

Mondragon Unibertsitatea

Alfredo Montoya Estibalez jna.

Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa

Marta Areizaga Ezkurdia and.

Kontsumoko Kooperatiben Federazioa

Juan M. Larrañaga Zabala jna.

Kredituko Kooperatiben Federazioa

Imanol Igeregi Bilbao jna.

Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioa

Juan M<sup>a</sup> Concha Aspiroz jna.

Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

Daniel Esnal Espinasse jna.

Garraiolarien Kooperatiben Federazioa

Halaber, ekitaldiaren bukaeran Batzordeen osae-  
ra zein zen zehaztuko dugu, aipaturiko ordezte  
hori salbu beste aldaketarik gabe iazko urtearekin  
alderatuta.

### Sustapena

Juan M<sup>a</sup> Concha jna.  
Jesús Alfredo Ispizua jna.  
José M<sup>a</sup> Aizega jna.  
Alfredo Montoya jna.  
Imanol Igeregi jna.  
Daniel Esnal jna.  
Marta Areizaga and.

### Araudi Aplikazioa

Juan M. Larrañaga jna.  
Alejandro Martínez jna.  
Koldo Arrese jna.  
Imanol Igeregi jna.  
Juan M<sup>a</sup> Concha jna.

### Sozietateak Iraungitzeko Prozesuetan Esku Hartzeko Batzordea (CIPES)

Patxi Ormazabal jna.  
Baleren Bakaikoa jna.  
Alfredo Montoya jna.  
Esteban Saez de Sanpedro jna.  
Imanol Igeregi jna.  
Marta Areizaga and.  
Fco. Javier Sanz jna. (\*)  
(\*) Aditu gisa.

### Kontseiluko langileak

2005eko ekitaldian ez da aldaketarik izan  
Kontseiluko langileen artean, eta honako hauek  
izaten jarraitu dute:

Juan Luis Arrieta jna.  
(Idazkari Orokor Teknikoa)  
Santiago Merino jna.  
(Abokatu Aholkularia)  
Ricardo Moreno jna.  
(Administraria)







# Aurrekontuari dagozkionak



## AURREKONTUARI DAGOZKIONAK

Ondoren 2005eko ekitaldiari dagozkion ekonomia- eta finantza-datuen laburpena aurkeztuko da, baita 2004ko ekitaldiko datuekin egindako alderaketa ere, eurotan.

Esan behar da 2005eko ekitaldiari dagozkion datu errealen euskarri diren egoera-orriak Zubizarreta Consulting, S.L. enpresak ikuskatu dituela eta, bere iritziz, zuzen adierazten dutela Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2005eko abenduaren 31n zuen finantza- eta ondare-egoera.

*“EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAren urteko kontuak ikuskatu ditugu: berauetan 2005eko abenduaren 31n zuen egoera-balantzea, eta data berean itxitako ekitaldiko galdu-irabazien kontua eta oroitidazkia sartzen dira, horien formulazioa Erakundeko Idazkari Orokor Teknikoaren ardura delarik. Gure ardura urteko kontu horiei buruz, orokorrean, iritzia ematea da, egin dugun lanean oinarrituta. Lan hau, orokorki onarturik dauden ikuskaritza-arauen arabera egin dugu, eta hauek, hautazko probak eginez, urteko kontuen egiaztagirien azterketa eta berorien aurkezpena, erabilitako kontabilitate-printzipioak eta egindako kalkuluak balioestea eskatzen dute.*

*Merkataritza-legeriaren arabera, konparazioak egin ahal izateko, balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta finantzaketa-koadroko partida bakoitzarekin, 2005eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko zifren ondoan, aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu ditu Idazkari Orokor Teknikoak. Gure iritzia 2005eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kontuei buruzkoa da bakarrik. 2005eko otsailaren 1ean gure ikuskaritza-txostena eman genuen 2004ko ekitaldiko urteko kontuei buruz, eta aldeko iritzia azaldu genuen han.*

*Gure iritziz, 2005eko urteko kontuek, beren alderdi garrantzitsu guztietan, EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAK 2005eko abenduaren 31n zuen ondarea eta finantza-egoera zuzen adierazten dituzte, baita egindako eragiketen emaitzak eta data berean itxitako ekitaldian lortu eta erabilitako baliabideak ere; gainera, behar hainbat informazio dute egoki interpretatu eta ulertzeko, orokorki onarturik dauden kontabilitate-printzipio eta arauen arabera betiere”.*

# BALANTZE LABURTUA 2005EKO ABENDUAREN 31IN

2005eko ekitaldia itxi eta kontuak ikuskatu ondoren, hona hemen Balantze laburtua eta 2004koarekin alderaketa (datu guztiak eurotan).

## EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

CIF: Q-5150003-A

Egoera Balantzeak, 2005eko eta 2004ko abenduaren 31koak (Euroak)

AKTIBOA	05.12.31	04.12.31	PASIBOA	05.12.31	04.12.31
<b>B) IBILGETUA</b>	<b>3.382.721</b>	<b>3.716.863</b>	<b>A) FONDO PROPIOAK</b>	<b>267.147</b>	<b>190.001</b>
II. Ibilgetze inmaterialak	315.154	323.856	I. Erreserbak	190.091	190.091
1. Emakida, patente, lizentzia, marka eta antzekoak	19.106	17.496	II. Galdu-irabaziak	77.146	-90
2. Erabilera lagapen eskubideak	391.708	391.708	<b>B) HAINBAT EKITALD. BANATZEKO SARRERAK</b>	<b>394.452</b>	<b>426.505</b>
3. Informatika-aplikazioak	1.154	1.154	I. Kapital-subentzioak	84.432	107.476
4. Amortizazioak	-96.814	-86.502	II. Hainbat ekitalditan banatzeko bestelako sarrerak	310.000	319.029
III. Ibilgetze inmaterialak	486.072	342.999	<b>C) GASTUETARAKO HORNID (FAEC) (2. oharra)</b>	<b>2.792.744</b>	<b>2.715.228</b>
1. Lursailak eta Eraikuntzak	368.360	2010.937	<b>D) EPE LUZERAKO HARTZEK (3. oharra)</b>	<b>1.140.132</b>	<b>1.419.264</b>
2. Instalazioak, altzariak	422.602	422.602	I. Bestelako hartzekodunak	1.140.132	1.419.264
3. Bestelako ibilgetua	147.224	147.035	<b>E) EPE LABUR HARTZEKOD</b>	<b>817.833</b>	<b>826.590</b>
4. Amortizazioak	-452.114	-428.575	IV. Merkataritza hartzekodunak	815.408	824.090
IV. Finantza Ibilgetzeak (1. oharra)	2.581.495	3.050.008	Erosketa edo zerbitzu-prestazioengatik zorrak	815.408	824.090
1. Finantza-partaidetzak	542.960	488.159	V. Merkataritzakoak ez diren bestelako zorrak	2.425	2.500
2. Bestelako kredituak	2.127.085	2.668.375	1. Herri Administrazioak	2.425	2.500
3. Fidantzak	618	618	Ordaintzeko dauden ordainsariak	0	0
4. Hornidurak	-89.168	-107.144	<b>ZENBATEKOA GUZTIRA</b>	<b>5.412.308</b>	<b>5.577.588</b>
<b>D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA</b>	<b>2.029.587</b>	<b>1.860.725</b>	<b>ZENBATEKOA GUZTIRA</b>	<b>5.412.308</b>	<b>5.577.588</b>
I. Zordunak (8. oharra)	550.555	549.539			
4. Hainbat zordun	550.555	549.539			
II. Bestelako kredituak	9.203	8.349			
III. Diruzaintza	1.467.113	1.300.182			
IV. Aldizkapenagatiko doikuntzak	2.716	2.655			

(1): Hor partaidetzako kontuen saldoak eta kooperatiba eraldatuei emandako kredituak daude, baita OINARRI, S.G.R.ko partaidetza ere.

(2): 2005eko ekitaldian, baita aurreko ekitaldietan ere, kooperatiba kitatu edo/eta eraldatuen ondorioz Kontseiluaren esku jarritako kopuru aplikatu gabeen saldoa jasotzen du FAEC Funtzak (Fondo de Aplicación de Extinciones Cooperativas—Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Fonda).

(3): Kooperatiben kitatze- eta eraldatze-prozesuek utzitako diru-sarreretatik elkarteei ordaindu gabe dauden zenbatekoak dira, batez ere.

## 2005EKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIAK

Hona hemen 2005eko galdu-irabazien kontua, eta 2004koarekin alderaketa, datu guztiak eurotan.

### EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA CIF: Q-5150003-A

2005eko abenduaren 31ko Galdu-Irabazien Kontua (Eurotan)

ZOR	05.12.31	04.12.31	HARTZEKO	05.12.31	04.12.31
<b>A) GASTUAK</b>			<b>B) SARRERAK</b>		
Egindako transferentziak	382.643	340.873	1. Ustiapeneko sarrerak	1.510.798	1.280.870
Pertsonal-gastuak	145.414	138.154	a) Hartutako transferent	767.733	736.803
a) Soldatak, ordainsariak eta asimilatuak	118.518	113.332	b) Bestelako sarrerak (1. oharra)	743.065	544.067
b) Zama sozialak	26.896	24.822			
Ibilgetuaren amortizazio zuzkidurak	33.852	34.839	<b>I- USTIAPENEO GALERAK</b>	<b>0</b>	<b>42.857</b>
Kanpo-zerbitzuak	197.954	298.247	Finantza-sarrerak	5.412	15.784
Kooperatiba Iraungitze Aplikazio Funtz Zuzkidura	708.054	511.614			
<b>I- USTIAPENEO MOZKINAK</b>	<b>42.882</b>	<b>0</b>	<b>III- JARDUERA ARRUNT. GALERAK</b>	<b>0</b>	<b>27.098</b>
Finantza-gastuak	5	25	Ekit.emait.intsul.d.transf. eta kapital-subentzioak	9.009	9.009
<b>II- FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>5.407</b>	<b>15.759</b>	Ezohiko sarrerak	106	4.943
<b>III- JARDUERA ARRUNTEN MOZKINAK</b>	<b>48.289</b>	<b>0</b>	Beste ekitaldietako sarrerak eta mozkina	24.457	13.056
Aparteko gastuak	3.323	0	<b>V- ZERGEN AURRET. GALERAK</b>	<b>0</b>	<b>90</b>
Beste ekitaldietako gastuak eta galerak	1.392	0			
<b>IV- EZOHIKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>28.857</b>	<b>27.008</b>			
<b>V- ZERGEN AURRETIKO MOZKINAK</b>	<b>77.146</b>	<b>0</b>			
<b>VI- EKITALDI EMAITZA (MOZKINAK)</b>	<b>77.146</b>	<b>0</b>	<b>VI-EKITALDIKO EMAITZ (GALERAK)</b>	<b>0</b>	<b>90</b>

(1) Funtsean, kooperatiben kitatze edo/eta eraldaketen ondoriozko diru-sarreretatik Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Funtsera egindako zuzkidura eta sarrerei dagokie.

## 2005 EKITALDIKO AURREKONTU-EGOERA

Hona hemen 2005eko ekitaldirako ezarritako aurrekontua eta benetan lortutako zifrak, eurotan.

Kontzeptua	Aurreikus. 2005	Erreal 05/12/31	Desbidera %
<b>OHIKO SARRERAK</b>	<b>750.000</b>	<b>750.102</b>	<b>100,01</b>
Aurrekontuko diru-zuzkidura	745.000	744.690	99,96
Ohiko bestelako sarrerak	5.000	5.412	108,24
<b>SARRERA BEREZIAK</b>	<b>745.001</b>	<b>1.056.247</b>	<b>141,78</b>
Desegiteak eta eraldaketak (*)	735.001	1.042.420	141,83
Finantza Sarrerak	10.000	13.827	138,27
<b>FAEC-EN KARGURAKO ZUZKIDURA</b>	<b>5.000</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.495.001</b>	<b>1.806.349</b>	<b>120,83</b>
<b>GASTUAK</b>			
<b>PERTSONAL-GASTUAK</b>	<b>145.500</b>	<b>145.414</b>	<b>99,94</b>
<b>FUNTZIONAMENDU-GASTUAK</b>	<b>108.500</b>	<b>118.973</b>	<b>109,65</b>
Bidaiak, egonaldiak, leku-aldatzeak	6.000	4.745	79,08
Kuotak eta harpidetzak	5.000	4.566	91,32
Bilerak, biltzarrak eta ikastaroak	50.000	51.181	102,36
Azpikontrazioa	9.500	24.653	259,51
Bestelako funtzionamendu-gastuak	38.000	33.828	89,02
<b>FAEC-CIPES GASTUAK</b>	<b>5.000</b>	<b>1.091</b>	<b>21,82</b>
<b>BIRJARPENEN INBERTSIOAK</b>	<b>12.000</b>	<b>1.799</b>	<b>14,99</b>
<b>IZAERA OROKORREKO JARDUERA GASTUAK</b>	<b>25.000</b>	<b>30.323</b>	<b>121,29</b>
<b>BATZORDEEN JARDUERA GASTUAK</b>	<b>207.000</b>	<b>204.402</b>	<b>98,74</b>
• 1. helburua	24.053	23.570	97,99
• 2. helburua	18.260	17.220	94,30
• 3. helburua	164.687	163.612	99,35
<b>KONTSEILUAREN JARDUERA PROPIOAK</b>	<b>271.000</b>	<b>178.512</b>	<b>65,87</b>
<b>HITZARMENAK FAEC ELKARTEAK</b>	<b>367.501</b>	<b>514.297</b>	<b>139,94</b>
<b>ELKARTZE-EGITUREN KOFINANTZAKETA</b>	<b>353.500</b>	<b>329.352</b>	<b>93,17</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.495.001</b>	<b>1.524.163</b>	<b>101,95</b>

(\*) Aurrekontuaren ondorioetarako, kontzeptu honengatik zifrak bat datoz desegite eta eraldaketengatik kobraturiko zenbatekoekin.



# Estatistika- eranskina



# ESTADÍSTIKA-ERANSKINA

## KOOPERATIBEN ERREGISTROKO DATUAK

### EAE-N 2005EKO EKITALDIAN ERATUTAKO KOOPERATIBAK

MOTAK	EAE GUZTIRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	7	7		
BIGARREN MAILA EDO GORAGOKOAK	3	2		1
IRAKASKUNTZA	2			2
MISTOAK	2	1		1
OSASUNA	1		1	
ENPRESA	4			4
LAN ELKARTUA	52	5	28	19
ETXEBIZITZAK	23	11	7	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>94</b>	<b>26</b>	<b>36</b>	<b>32</b>



## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERATUTAKO KOOPERATIBAK 2005-12-31N

MOTAK	EAE GUZTIZA	ARABAA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	95	47	24	24
ENPRESA ELKARTEAK	2			2
KONTSUMOA	32	2	17	13
KREDITUA	3		1	2
BIGARREN MAILA EDO GORAGOKOAK	47	10	7	30
IRAKASKUNTZA	96	9	43	44
ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK	3		2	1
MISTOAK	12	2	1	9
OSASUNA	1		1	
ENPRESA-ZERBITZUAK	18	1	4	13
ZERBITZU PROFESIONALAK	55	7	25	23
LAN ELKARTUA	1007	137	453	417
ETXEBIZITZAK	215	97	52	66
<b>GUZTIRA</b>	<b>1586</b>	<b>312</b>	<b>630</b>	<b>644</b>

